

NAZIOGINTZA TALDEAREN PROPOSAMENA GETARIAKO UDALARI

1.- PAISAIA SINBOLIKOAREN GARRANTZIA

Ezagutzen ez dugun Herri bat lehenbizikoz bisitatzen dugunean, bertako **paisaia sinbolikoak** Herri horretaz informazio ugari ematen digu. Esate baterako, Kataluniara edo Flandriara joaten garenean, ohartuko gara bide-seinaleak katalanez eta flandrieraz idatzita daudela: horrek garbi adierazten digu zein den Herri horien hizkuntza nagusia. Era berean, Galesera edo Korsikara baldin bagoaz, ingelesa eta frantsesa bide-seinaletan ikusteaz gain bertako hizkuntzak ere ikusiko ditugu, herrialde horietan hizkuntza propio bat dutenaren seinalea.

Esan gabe doa Euskal Herria bisitatzen duten turistak ere ohartuko direla gure Herriaren zati handi batean bide-seinaleak euskaraz ere badaudela, eta horrenbestez erraz ondoriozta dezakete hemen hizkuntza propio bat ere badugula. Paisaia sinbolikoak gure hizkuntzaren berri emango die.

Era berean, Eskoziako Edinburgora joaten garenean, edo Bartzelonara, etxe askoren balkoietan Eskoziako banderak edo Kataluniakoak ikusiko ditugu, nonahi. Sinboloen bidez eskoziarrak eta katalanak argi adierazten ari dira zein den euren sentimendu nazionala. Errepresentazio sinboliko horien bitartez mapa askotan agertzen ez diren Herri bat badagoela gogorarazten diete bisitariei, ingelesak edo espainolak ez direla adierazten diete.

Paisaia sinbolikoak, azken finean, guri buruzko informazioa ematen die kanpotarrei. Ikusten dutenaren arabera, espainiar edo frantziar bezala sailkatuko gaituzte, ala ez.

2.- GETARIAKO KAIAREN PAISAIA SINBOLIKOA ESPAINOLA DA

Bai, Getariako kaia ikusten duen edozein turistak Espainiako banderak ikusiko ditu bertako ontzi guztietan. Eta, beste sinbolorik ezean, Getaria Marbella edo Santander bezain espainola dela pentsa dezake. Bai, badakigu Espainiako bandera derrigorrez eraman behar dutela hemengo ontzi guztiek... Baina inork debekatzen al digu ikurrina ere jartzea? Ez, ezta?

Euskal Herriko beste kai batzuk ezagutzen ditugu eta bertan ohikoa da derrigorrezko bandera arrotzarekin batera ikurrinak ere ikustea. Arrantzako itsasontzietan, txalupetan edo aisialdiko itsasontzietan, ikurrinaren presentzia ohikoa da. Zergatik ez Getarian?

3.- NAZIOGINTZAREN PROPOSAMENA

Euskal kontzientzia nazionala indartzeko lanean ari da NAZIOGINTZA Taldea. Eta sinboloek kontzientzia horri eusteko duten garrantzia ez dugu gutxiesten. Horregatik, eta Getariako egoera ikusita, proposamen zehatza egiten diogu Getariako Udalari: **Ikurrinak erosteko eta ontzien jabeen artean banatzeko proposamena, hain zuzen.** Udalak eragile aktiboa izan beharko luke gaurko egoerari buelta emateko, paisaia sinbolikoa aldatzeko, Getaria Euskal Herria dela argi geratuko bada.

Kostu gutxiko ekimena da gure ustez, ikurrin txikiak garestiak ez direlako eta Getariako kaia ere txikia delako. Banaketari dagokionez, Udalak ohiko bitartekoak erabil ditzake eta jende askorengana iritsi, ekimenaren arrakasta bermatuko duena.

NAZIOGINTZA Taldea prest legoke laguntzeko, baina ekimena Getariako Udalak antolatu beharko luke gure iritziz, horren eraginkortasuna bermatze aldera.

Euskal Herria, 2020ko urriaren 5ean

Naziogintza Taldea